

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000003308

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0090**Xedea**

Itsuki Irrati digitala martxan ipintzeko, Bermeoko Udala eta Kostarri Kultur Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Itsuki Irrati digitala martxan ipintzeko, Bermeoko Udala eta Kostarri Kultur Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2025eko maiatzaren 13an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz.

Hirugarrena: 2025eko ekainaren 2an, udal kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena emon eban.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua, Administrazio Publikoaren Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legearen 137.4.c) artikulua, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluen b), f) eta s) atalen, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen gehigarriaren arabera, alkateari jagokon arren, 2024ko apirilaren 24ko 1.886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.



Baina 2025eko ekainaren 3ko 3304 Alkatetza Dekretuaren arabera, Alkateak berreskuratzen dau erabaki hau hartzeko ahalmena.

Erabakia

Hori guztia dala eta, honakoa erabaki dot:

LEHENENGOA: Itsuki Irrati digitala martxan ipintzeko, Bermeoko Udala eta Kostarri Kultur Elkartegaren arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90013323F00N3S5T3O7W2T9

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2025 09:29:24

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0090

Fecha: 12/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

